

Todas las personas participantes en la Media Maratón de Vitoria-Gasteiz, por el hecho de tomar parte, aceptan el Reglamento de la prueba

Por favor, léelo para conocerlo.

La Federación Alavesa de Atletismo organiza la 47ª Media Maratón de Vitoria-Gasteiz, que se celebrará el día 14 de Diciembre de 2025.

1. Esta carrera está abierta a la participación de cualquier persona mayor de edad que lo desee y formalice su inscripción, sea atleta federada o no. La distancia a recorrer será de 21,097 Km. totalmente por asfalto. El circuito está homologado por la Real Federación Española de Atletismo. No obstante, la Organización se reserva la posibilidad de efectuar algún cambio en el circuito, si las circunstancias así lo exigen. El límite de dorsales será de 4000.
2. Las inscripciones se realizarán a través de la página web <http://www.mediamaratonvitoriagasteiz.com/>. La forma de pago admitida será con tarjeta de crédito o débito y se deberá realizar el pago a la hora de formalizar la inscripción.

Una vez realizada la inscripción no está contemplada la devolución de la misma salvo lesión o enfermedad. Para ello será necesaria la presentación de un certificado médico a la organización mediante correo electrónico a la siguiente dirección:
info@mediamaratonvitoriagasteiz.com.

Estas reclamaciones únicamente se podrán realizar hasta el 30 de noviembre. A partir de esa fecha se procederá a la devolución del 50% tras presentación de certificado médico.

Si por cualquier otro motivo no vas a poder participar en la carrera, está contemplado el cambio de titularidad del o la atleta. El cambio debe hacerlo el/la atleta inscrito inicialmente a través del enlace recibido en el justificante de inscripción.

No se admitirá ningún cambio de dorsal después del 10 de Diciembre.

3. La salida tendrá lugar a las 10'30 h. desde Portal de Lasarte. La llegada será en la Plaza de Amadeo García Salazar. El tiempo máximo para finalizar la carrera será de 2 h. 30 min. Se establecerán 3 controles de paso que se cerrarán después de la salida en el km.5 en 38 minutos, en el km 10 en 1 h. 13 min., y en el km. 15 en 1 h. 48 min.; además de los respectivos pasos en tiempo cada kilómetro. Toda persona participante que no haya pasado en dicho tiempo quedará excluido de la carrera. Estos controles serán observados escrupulosamente.

4. El dorsalchip se colocará visiblemente en el pecho sin doblar.
5. Existirán cuatro puntos de avituallamiento líquido en el recorrido. Estarán situados en los puntos kilométricos 5, 10, 15 y 20. Asimismo, existirá un último avituallamiento, sólido y líquido, tras la línea de llegada. Los únicos vehículos que podrán seguir la carrera serán los que permita la Organización.
6. Esta prueba es una carrera a pie no está permitido hacerla o acompañar con patines, patinete, bicicleta...– y no está permitido correrla acompañado de mascotas. Por motivos de seguridad se prohíbe cruzar la meta acompañado de menores.
7. El control de la carrera estará a cargo del Comité de Jueces de la Federación Alavesa de Atletismo y la toma de tiempos será electrónica por chip. Las clasificaciones completas y los diplomas personales acreditativos estarán disponibles en la página de la Media Maratón: www.mediamaratonvitoriagasteiz.com y www.buscametas.com
8. Existirá servicio de vestuario y duchas a disposición de las/los atletas en el C. D. de Mendizorrotza (Acceso por Portal de Lasarte), con taquillas guardarropa.
9. La Organización declina la responsabilidad por daños y perjuicios o lesiones que la participación en esta prueba pueda ocasionar, a sí mismo, a otra persona o incluso en el caso de que terceras personas causen daño al o la atleta.
10. El riesgo de responsabilidad civil del patrocinio y organización de la prueba estará cubierto por una póliza de seguro contratada por la Federación Alavesa de Atletismo.
11. Todas las personas participantes, por el hecho de tomar parte, aceptan este Reglamento. Todo lo no previsto en el mismo, se atenderá al Reglamento de la IAAF.

Vitoria-Gasteizko Maratoi Erdiko parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, probaren araudia onartu beharko du

Irakur ezazu, mesedez, haren berri izateko.

Arabako Atletismo Federazioak Vitoria-Gasteizko 47. Maratoi Erdia antolatu du 2025ko abenduaren 14erako.

1. Adinez nagusi den orok parte har dezake lasterketan, aurretik izena emanda: berdin atleta federatuek zein federatu gabeek. Ibilbideak 21,097 km izango ditu, asfaltoan barrena oso-osorik. Espainiako Atletismo Federazioak homologatua dago zirkuitua. Dena den, antolakuntzak aukera izango du zirkuituan aldaketak egiteko, beharrezkoa izanez gero. Gehienez, 4000 dortsal banatuko dira.
2. Izena emateko, webgune honetara jo behar da:
<http://www.mediamaratonvitoriagasteiz.com/>. Kreditu-txartelaren edo zordunketa-txartelaren bidez ordaindu behar da, izena emateko unean bertan.

Behin izena emanda, ez da izango aukerarik ordaindutakoa berreskuratzeko, salbu eta lasterkaria lesionatu edo gaixotzen bada. Kasu horretan, medikuaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko zaio antolakuntzari, honako helbide elektronikoko honetara idatzita:
info@mediamaratonvitoriagasteiz.com.

Halako erreklamazioak azaroaren 30era arte egin ahal izango dira soilik. Egun horretatik aurrera eginez gero, ordaindutakoaren %50 itzuliko zaio lasterkariari, betiere hark osasun-ziurtagiria aurkeztu ondoren.

Lasterkariren batek beste edozein arrazoi dela-eta lasterketan parte hartzerik ez badu, aukera izango du bere lekua beste atleta bati uzteko. Hasieran izena eman duen atletak berak egin beharko du aldaketa hori, inskripzioaren frogagirian jasotako estekaren bidez.

Abenduaren 10etik aurrera, ez da onartuko dortsal-aldaketarik.

3. Lasterketa 10:30ean hasiko da, Lasarteko Atetik. Helmuga Amadeo García de Salazar plazan egongo da. Lasterketa bukatzeko, 2 ordu eta 30 minutu izango dira gehienez. Ibilbidean zehar, hiru kontrolgune izango dira, honako kilometro hauetan: 5. km-an (irten eta 38 minutura itxiko da), 10. km-an (ordubete eta 13 minutura itxiko da) eta 15. km-an (ordubete eta 48 minutura itxiko da). Horrez gain, bakoitzaren igarotze-denborak ere neurtuko dira. Kontrolguneetatik denbora horien barruan pasatzen ez diren parte-hartzaileak lasterketatik at geratuko dira. Kontrolak oso zorrotzak izango dira.
4. Dortsal txipduna bularrean jarri behar da, argi ikusteko moduan, tolestu gabe.

5. Ibilbidean, edariak hartzeko lau gune egongo dira, 5., 10., 15. eta 20. kilometroetan. Gero, helmuga igarota, edariak eta jakiak hartzeko beste gune bat egongo da. Ibilbidearen barruan, antolakuntzak baimendutako ibilgailuak bakarrik ibili ahal izango dira.
6. Ibilbidea oinez egin beharko da, hots, ezingo da egin patinetan, patinetean, bizikletan eta halakoetan, ezta horiez lagunduta ere. Maskotekin batera ere ezingo da korritu. Segurtasun-arrazoiak direla-eta, helmuga ezingo da gurutzatu adingaberen batek lagunduta.
7. Arabako Atletismo Federazioko Epaile Batzordeak kontrolatuko du lasterketa, eta, denborak, berriz, era elektronikoan hartuko dira, txipen bidez. Sailkapen osoak eta parte hartu izana frogatzeko diplomak Maratoi Erdiaren webgunean egongo dira eskuragarri: www.mediamaratonvitoriagasteiz.com eta www.buscametas.com.
8. Atleten aldagelak eta duxak erabili ahal izango dituzte, Mendizorrotza Kirol Esparruan (Lasarteko Atletik sartuta), eta arropa gordetzeko armairuak ere izango dituzte.
9. Lasterketan parte hartzeak kalte-galerarik edo lesiorik eraginez gero -atletak bere buruari, atletak beste inori, edo beste edonork atletari-, antolakuntzak ez du bere gain hartuko horien erantzukizuna.
10. Arabako Atletismo Federazioak aseguru-poliza bat kontratatua du proba hau antolatu eta babesteak dakarren erantzukizun zibileko arriskua estaltzeko.
11. Parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, araudi hau onartu beharko du. Araudi honetan ezarri ez den guztian, Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkartearen (IAAF) araudiari men egingo zaio

REGLAMENTO LA TXIKI DE LA MEDIA 2025

Todas las personas participantes en la Txiki de la Media Maratón de Vitoria-Gasteiz, por el hecho de tomar parte, aceptan el Reglamento de la prueba

Por favor, léelo para conocerlo.

1. La Federación Alavesa de Atletismo organiza la Txiki de la Media Maratón de Vitoria-Gasteiz, que se celebrará el día 14 de Diciembre de 2025.

2. Esta carrera está abierta a la participación de cualquier atleta que formalice su inscripción. Las categorías y edades serán las reconocidas en deporte escolar en Euskadi:

Prebenjamín: nacidos-as en 2018 y posteriores

Benjamín: nacidos-as en 2016 y 2017

Alevín: Nacidos-as en 2014 - 2015

Infantil: Nacidos-as en 2012 - 2013

El límite de dorsales será de 500. El precio de la inscripción será de 4 euros

3. La salida tendrá lugar desde la pista de Mendizorroza. La llegada será en la Plaza de Amadeo García Salazar, transcurriendo por el circuito de la Media Maratón. Los horarios de las carreras serán los siguientes:

Prebenjamín: 10:40 h. (696 m.)

Benjamín: 10:55 h. (696 m.)

Alevín: 11:05 h. (1096 m.)

Infantil: 11:15 h. (1096 m.)

4. El dorsal se colocará visiblemente en el pecho sin doblar. No se realizarán clasificaciones. Todos los atletas que finalicen la prueba recibirán de premio el gymsack de la Media con varios artículos.

5. El control de la carrera estará a cargo del Comité de Jueces de la Federación Alavesa de Atletismo.

6. Existirá servicio de vestuario y duchas a disposición de las/los atletas en el C. D. de Mendizorrotza (Acceso por Portal de Lasarte), con taquillas guardarropa.

7. La Organización declina la responsabilidad por daños y perjuicios o lesiones que la participación en esta prueba pueda ocasionar, a sí mismo, a otra persona o incluso en el caso de que terceras personas causen daño al atleta. No se permitirá a ninguna persona acompañar a los-las atletas en carrera.

8. El riesgo de responsabilidad civil del patrocinio y organización de la prueba estará cubierto por una póliza de seguro contratada por la Federación Alavesa de Atletismo.

9. Todas las personas participantes, por el hecho de tomar parte, aceptan este Reglamento. Todo lo no previsto en el mismo, se atenderá al Reglamento de la IAAF

MARATOI ERDI TXIKIAREN ARAUDIA

Vitoria-Gasteizko Maratoi Erdi Txikiko parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, probaren araudia onartu beharko du.

Irakur ezazu, mesedez, haren berri izateko.

1. Arabako Atletismo Federazioak Vitoria-Gasteizko Maratoi Erdi Txikia antolatu du 2025ko abenduaren 14erako.

2. Edonork parte hartu ahal izango du lasterketan, aurretik izena emanda. Euskadiko eskola-kirolerako zehaztuta dauden kategoria eta adinen arabera banatuko dira lasterkariak:

Benjaminurrekoak: 2018ean eta geroago jaioak.

Benjaminak: 2016ean eta 2017an jaioak.

Kimuak: 2014an eta 2015an jaioak

Haurrak: 2012an eta 2013an jaioak

Gehienez, 500 dortsal banatuko dira. Izena emateko, 4 euro ordaindu beharko dira.

3. Irteera Mendizorrotzako pistan egongo da. Helmuga, berriz, Amadeo García de Salazar plazan, Maratoi Erdiaren zirkuitutik igaro eta gero. Hona hemen lasterketen ordutegiak:

Benjaminurrekoak: 10:40. (696m)

Benjaminak: 10:55. (696m)

Kimuak: 11:05. (1096m)

Haurrak: 11:15. (1096m)

4. Dortsala bularrean jarri behar da, argi ikusteko moduan, tolestu gabe. Ez da sailkapenik izango. Proba bukatzen duten atleta guztiek Maratoi Erdiaren gymsack bat jasoko dute sari gisa, zenbait objektuarekin.

5. Arabako Atletismo Federazioko Epaile Batzordeak kontrolatuko du lasterketa.

6. Atletak aldagelak eta duxtak erabili ahal izango dituzte, Mendizorrotza Kirol Esparruan (Lasarteko Atetik sartuta), eta arropa gordetzeko armairuak ere izango dituzte.

7. Lasterketan parte hartzeak kalte-galerarik edo lesiorik eraginez gero –atletak bere buruari, atletak beste inori, edo beste edonork atletari–, antolakuntzak ez du bere gain hartuko horien erantzukizuna. Lasterketan zehar, atletei ezingo die inork ere lagundu.

8. Arabako Atletismo Federazioak aseguru-poliza bat kontratatua du proba hau antolatu eta babesteak dakarren erantzukizun zibileko arriskua estaltzeko.

9. Parte-hartzaile orok, parte hartze hutsagatik, araudi hau onartu beharko du. Araudi honetan ezarri ez den guztian, Atletismo Federazioen Nazioarteko Elkartearen (IAAF) araudiari men egingo zaio. Atletak domina bat eta promozio-poltsa bat jasoko dute.